

# Erloju adimendua Smartwatch

IRIZPIDEAK ETA AHOLKUAK

## ZER DA?


### Kontrola 24/7

GPSa, Interneterako konexioa, deiak, bideo-deiak, mezuak eta smartphone baten antzeko app eta joko batzuk izan ditzaketen erlojuak dira. Kokapenaren etengabeko kontrola eskaintzen dute.




## ERABILTZEKO ADINA Erlojuaren arabera

Soilik GPSa badu edozein adinetan. Dei eta mezuen aukera baditu LHko 4gn mailatik aurrera. Interneterako konexioa badu, musika, jokoak, bideo-deiak... 13 urtetik aurrera.




## ZIBERSEGURTASUNA Babes gutxi

Gailu horietako askok babes gutxi dutenez, familiek ezagutza tekniko handia beharko dute erlojuak modu seguruan erabiltzeko.



## DISTRAKZIOAK eta arriskuak

Ikastetxean edo etxeko lanak egiten ari diren bitartean distraitu ditzaketen erlojuak ez eramatea gomendatzen da. Motxilan utz ditzakete. Kontaktuak (mezuak bidali, deiak egiteko) familiari mugatu, pribatutasunaren garrantziaz eta erlojuen arriskuez hitz egin.



## BEHARREZKOA DA? Kontrola 24/7

GPS bidezko kontrol-teknologia horiek soilik benetako beharra dagoenean erabiltzea gomendatzen da: bahiketa aukera erreal dagoenean.